LIBURU BERDEA. Gipuzkoa: etorkizuneko egoitzaranzko trantsizioa

# LIBURU BERDEA

**Laburpen exekutiboa 2022**



**2023ko apirila**

# Aurkibidea

**Hitzaurrea** 3
**1. Sarrera: Gipuzkoa etorkizuneko egoitzaranzko trantsizioa** 4
**2. Diagnosi dimentsioak** 4
**3. Liburu berdeko transtsizioko gizarte politiken aurrerakuntza maila 2022an** 5
3.1. Adierazleen egoeraren emaitza 5
3.1.1. Jarduketen egikaritze orokorra 5
3.1.2. Aurrekontua egikaritzea 5
3.1.3. Trantsizio indizea 6
3.1.3.1. Berrikuntza adierazleak 6
3.1.3.2. Gobernantza Kolaboratiboko adierazleak 7
3.1.3.3. Inpaktu adierazleak 7
3.1.3.4. Emaitzen adierazleak 8
3.2. Liburu Berdeko palanken eta jarduketen emaitzak 8
3.2.1. Jarduketa bakoitzaren egikaritze maila 14
3.2.2. Aurrekontu egikaritua 14
3.2.3. Trantsizio indizea 15
3.2.3.1. Berrikuntza adierazleak 16
3.2.3.2. Gobernantza kolaboratiboko adierazleak 16
3.2.3.3. Inpaktu adierazleak 17
3.2.4. Emaitzen adierazleak 17

# Hitzaurrea

Liburu Berdea gizarte arazo jakin bati buruzko erakunde ikuspegia eskaintzen duen dokumentu bat da. Kasu honetan, Gizarte Politiketako Departamentuak (Gipuzkoako Foru Aldundia) egindako dokumentu bat da, eta Gipuzkoako egoitza zentroetako arreta eta zainketa-ereduaren aldaketari buruzko ikuspegia ematen du. Liburu berde hau hiru helburu nagusirekin egin da:

1. helburua: zainketa-ereduaren aldaketari buruzko ikuspegia eskaintzea
2. helburua: zainketa-ereduaren aldaketari buruzko ikuspegia partekatzea
3. helburua: zainketa-ereduaren trantsiziorako ibilbide-orria ezartzea

Liburu Berdea Gipuzkoako egoitza zentroetan arreta- eta zainketa-eredu berri baterako trantsizioa egiteko gida bat da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuko teknikariek eta Gipuzkoako egoitza zentroetako zuzendariez osatutako Kontraste Talde batek egin dute, eta honako hauekin kontrastatu eta kontsultatu da: a) Erabiltzaileak/Senideak, b) Profesionalak, c) Egoitza zentroetako kudeatzaileak, eta d) Adituak. Horrez gain, kontsulta egin zaie sindikatuei, patronalei eta hirugarren sektoreko eragile garrantzitsuei. Lau kontraste paneletako 220 pertsonak parte hartu dute kontsulta prozesuan. Horrez gain, sindikatuen eta sektoreko patronalen ekarpenak jaso dira. Ekarpen multzo horri esker, Liburu Berdearen behin betiko bertsioa egin ahal izan da. Liburu hori ibilbide-orri bat egiteko gida izaten ari da, trantsizioko palankak operazionalizatzen dituena, eta dokumentu honetan aurkezten ditugu haren lehen monitorizazioaren emaitzak.

Horrez gain, Liburu Berdearen gobernantzaren barruan, bost jarraipen-batzorde eratu dira (1.- erabiltzaileak/senideak, 2.- profesionalak, 3.- sindikatuak, 4.- patronal-erakundeak eta 5.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Adinekoen Kontseilua), eta urtean behin Liburu Berdearen ezarpenari buruzko informazioa jasoko dute.

Liburu Berdea monitorizatzeko eta ebaluatzeko estrategia bat garatzeko konpromisoa ere hartu nuen, metodologia parte-hartzaileak (erabiltzaile, senide eta hurbilekoena, profesional eta adituena), joeren analisia eta adierazle-sistemak barne.

Monitorizazio- eta ebaluazio-estrategia horren emaitza da Liburu Berdearen aurrerapenaren 2022ko lehen laburpen exekutibo hau, eta atsegin handiz aurkezten dizut. Era berean, laburpen exekutibo hau Liburu Berdearen ebaluazioaren 2022ko emaitzen lehen txostenaren laburpena da.

Sei hilean behin (tarteko txostena) eta urtean behin (urteko txostena), Liburu Berdearen ebaluazioaren emaitzei buruzko txosten bana egin eta partekatuko dugu, interes talde guztiei kontuak emateko dugun politika betez.

Halaber, kontuak emateko sistema jarraitu bat lantzen ari gara, lehen aipatutako tarteko txostenen eta urteko txostenen kontu-ematea osatzeko. Hilabete batzuen buruan, herritarren, sektoreko eragileen eta gainerako interes taldeen esku jarriko da sistema hori.

Maite Peña
Gizarte Politikako diputatua
Gipuzkoako Foru Aldundia

# 1. Sarrera: Gipuzkoa etorkizuneko egoitzaranzko trantsizioa

“Gipuzkoa: etorkizuneko egoitzaranzko trantsizioa”Liburu Berdea, Gizarte Politikako Departamentuak (Gipuzkoako Foru Aldundia) egin ondoren kontsulta publikopean egondakoak, gizarte politikako palankei eta jarduketei buruzko ikuspegi adostua ematen digute, Gipuzkoako egoitza zentroetan arreta eta zainketa ereduaren trantsizioa bultzatzea ahalbidetuko dutenak.

Gipuzkoa 20>30 Agendaren 25. jarduketan (“Egoitza arretako ostatuen etorkizunaz hausnartzea”) dago sartuta, eta honako helburu nagusi hauek ditu:

- **1. helburua: Diagnosia.** Liburu berdeak Gipuzkoako egoitza zentroek dituzten erronka nagusien diagnosi ikusmoldea ematen du (2021)
- **2. helburua: Etorkizuna.** Liburu berdeak etorkizunerako ikuspegia ematen digu, egoitza zentroetan zainketa eta arreta eredua eraldatzeko.
- **3. helburua: Politikak.** Liburu berdeak Gipuzkoan egoitza zentroen eredu berri bateranzko trantsizioa sustatzeko aukera emango duten palanka eta jarduketa multzo bat definitzen du.

# 2. Diagnosi dimentsioak

Jarraian, diagnosirako dimentsio nagusiak laburtzen dira, Gipuzkoako egoitza sarearen erronka nagusien inguruko ikusmoldea eskaintzen digutenak.

**Egoitza sektorearen kanpoko baldintzak:**
- 1. dimentsioa. Eskaria handitzea
- 2. dimentsioa. Eskariaren profil berria
- 3. dimentsioa. Etxebizitza nahiago izatea
- 4. dimentsioa. Familiaren mugak laguntza-emaile moduan
- 5. dimentsioa. Koordinazio soziosanitarioa

**Egoitza sektorearen barne baldintzak**
- 6. dimentsioa. Arretaren kalitatea eta pertsonalizazioa
- 7. dimentsioa. Egoitza zentroetako langileen ratioak
- 8. dimentsioa. Egoitza zentroetako lan baldintzak
- 9. dimentsioa. Giza baliabideen eskuragarritasunaren mugak
- 10. dimentsioa. Berrikuntzaren bazterrekotasun erlatiboa
- 11. dimentsioa. Arkitektura eta espazio fisikoak
- 12. dimentsioa. Egoitza sistemaren jasangarritasuna
- 13. dimentsioa. Ikuskapena eta ebaluazio gaitasuna
- 14. dimentsioa. Komunikazio prozesuen ahuldadeak

# 3. Liburu berdeko trantsizioko gizarte politiken aurrerakuntza maila 2022ko abenduaren 31n

## 3.1. Adierazleen egoeraren emaitza

Liburu Berdeko 46 jarduketetatik 32ren jarraipena egin da, beste 14ak 2024an hastekoak baitira.

Hurrengo apartatuetan Liburu Berdeko aztertutako 32 jarduketen egoera laburtzen da, eta III. eranskinean dokumentu zehaztuago bat jaso da, 2022an liburuaren jarduketa bakoitzean lortutako emaitzak jasotzen dituena.

### 3.1.1. Jarduketen egikaritze orokorra

Hurrengo taulan jasotzen da 2022an hasi behar zuten Liburu Berdeko 32 jarduketen egungo egoeraren laburpena. Nabarmentzekoa da 5 jarduketa amaitu direla dagoeneko, 14 ari direla egun egikaritzen, 11 ez direla oraindik hasi eta 2 jarduketa 2023ra atzeratzea erabaki dela.

| Egoera | Jarduketak |
|---|---|
| Amaituta (% 100) | 5 jarduketa |
| Abian | 14 jarduketa |
| Hasi gabe (2023rako planifikatuta) | 13 jarduketa |

### 3.1.2. Aurrekontua egikaritzea

Aurrekontuaren egikaritze mailari dagokionez, datua egikaritutako aurrekontuarena da. **2022an** egikaritutako aurrekontua, guztira**, 15.181.120 €. eurokoa da**. Dena den, datu hori behin-behinekoa da, eta handitu egingo da, departamentuko teknikariak oraindik ere jarduketa batzuen datuak eskuratzeko lanean dihardute eta.

Jarraian, egikaritutako aurrekontua aurkeztu da, Liburu Berdean trantsiziorako egituratutako zazpi palanken arabera banatuta. 5. eta 7. palanken kasuan, haien jarduketak ez dira hasi oraindik, eta, beraz, ez da gasturik egin.



### 3.1.3. Trantsizio indizea

Jarduketen trantsizio indizea kalkulatzeko, jarduketa bakoitzaren **berrikuntza adierazleen, gobernantza kolaboratiboko adierazleen eta inpaktu adierazleen** batezbesteko aritmetikoa egiten da.

$$\textbf{Trantsizio indizea} = \frac{\textbf{Berrikuntza adierazleak} + \textbf{Gobernantza adierazleak} + \textbf{Inpaktu adierazleak}}{\textbf{3}}$$

**2022ko abenduaren 31n, Liburu Berdearen trantsizio indizea % 48 izan da.**

2022a amaitzean, ikusi da jarduketa gehienek (8) trantsizio indize ertaina (% 31-% 70) dutela. Gaur arte, 4 jarduketatan trantsizio indizea altutzat jo daiteke, eta oraingoz 2tan bakarrik lortu da trantsizio indize baxua. Horrez gain, 13 jarduketa ezin izan dira neurtu, ez direlako hasi, eta 4 jarduketatan ez dagokio trantsizio indizea neurtzea, ez dutelako trantsizioan laguntzen.

Azpimarratu beharra dago orokorrean trantsizio indizeari eragin egin diola jarduketen estaldura maila neurtzeko daturik ezak, eta, beraz, inpaktuaren adierazlearen ehunekoa txikitu egin da, eta, hortaz, baita trantsizio indizea ere.




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

#### 3.1.3.1. Berrikuntza adierazleak

Txostenaren aurreko apartatuetan adierazi denez, berrikuntza adierazlea adierazle sintetiko bat da, beste hiru adierazleren bitartez kalkulatua. Liburu Berdearen jarduketa bakoitzerako kalkulatzen da, eta berrikuntzaren dibertsitate mailaren, pertsonalizazio mailaren eta prestakuntza mailaren adierazleen batezbestekoa eginez lortzen da.

**2022ko abenduaren 31n, Liburu Berdearen Berrikuntza indizea % 62 izan da.**

Informazioa dugun jarduketen berrikuntza adierazleen laburpen grafikoari erreparatuz gero, ondoriozta daiteke jarduketa gehienek berrikuntza maila handia dutela (7, guztira), eta bi jarduketek dutela berrikuntza maila baxua.

Kasu honetan, bi jarduketetan, haien izaera tarteko, ez dagokio berrikuntza maila neurtzea: 2. jarduketa “Egoitza zentro berriak sortzea” eta 14. jarduketa “Diagnosi soziosanitarioa”.




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

### 3.1.3.2. Gobernantza kolaboratiboko adierazleak

Gobernantza kolaboratiboko adierazle hau beste hiru adierazletan oinarrituta kalkulatzen da: antolakuntzako lankidetza maila, erakundeen lankidetza maila eta gobernantza sozialaren maila.

**2022ko abenduaren 31n, Liburu Berdearen Gobernantza indizea % 58 izan da.**

Eskuragarri dagoen informazioarekin ondoriozta daiteke 2022an gobernantza kolaboratiboko maila handia lortu dela (% 71tik gorakoa) 8 jarduketatan, 3 jarduketak gobernantza maila ertaina dutela, eta 4k gobernantza maila baxua.




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

### 3.1.3.3. Inpaktu adierazleak

Jarduketen trantsizio maila kalkulatzeko erabiltzen den hirugarren adierazle sintetikoa da, eta xede populazioaren estaldura mailaren adierazleen eta berrikuntzako jardunbide egokien transferentzia mailaren batezbestekoaren bidez kalkulatzen da.

**2022ko abenduaren 31n, Liburu Berdearen inpaktu indizea % 24 izan da.**

Grafikoan ikus daitekeenez, orain arte eragin handia izan duten 2 jarduera daude, eta, gainera, nabarmendu beharra dago jarduketa askok (10) maila txikia dutela. Azken horren arrazoia da, hein handi batean, oraingoz askotan ez dagoela estaldura mailaren daturik, eta horrek murriztu egiten du inpaktu adierazlea (% 0n gelditzen baita), baita jarduketen trantsizio adierazlea ere.

Bi jarduketetan, haien izaera tarteko, ez dagokio berrikuntza maila neurtzea: 2. jarduketa “Egoitza zentro berriak sortzea” eta 14. jarduketa “Diagnosi soziosanitarioa”.

Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)




#### 3.1.3.4. Emaitzen adierazleak

2022an, jarduketa bakoitzerako emaitzen adierazleak definitzeko egin da lan, Liburu Berdeko jarduketa bakoitza egikaritzean lortutako emaitzak neurtzeko. 2023an, jarduketen arduradunek lanean jarraituko dute datuak lortu ahal izateko eta definitutako adierazleak neurtzeko.

## 3.2. Liburu Berdeko palanken eta jarduketen emaitzak

Jarraian, Liburu Berdeko jarduketa bakoitza 2022ko abenduaren 31n monitorizatzearen emaitza aurkeztu da:

### 1. palanka. Arretaren eta zainketen pertsonalizazioa eta kalitatea

1. gomendioa. Zentro berriak sortzea eta daudenetan espazio fisikoak egokitzea (pertsonalizazioa)

| 1. jarduketaren izenburua. | Espazio fisikoen kalitatearen diagnosia | | | |
|---|---|---|---|---|
| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
| % 100 | 15.000 € | % 72 | % 50 | % 61 |
| **Trantsizio indizea** | **% 61** | | | |

| 2. jarduketaren izenburua. | Egoitza zentro berriak sortzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
| % 100 | 11.561.863 € | % 67 | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **% 67** | | | |

| 3. jarduketaren izenburua. | Arkitektura egokitzapeneko programa | | | |
|---|---|---|---|---|
| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
| % 100 | 2.273.994 € | % 100 | % 0 | % 100 |

| Trantsizio indizea | % 67 |
|---|---|

| 4. jarduketaren izenburua. | Egoitza zentroen espezializazioari buruzko diagnosia | | | |
|---|---|---|---|---|
| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
| % 93 | 15.583 € | % 25 | % 0 | % 45 |
| Trantsizio indizea | % 23 | | | |

## 2. gomendioa. Langileen ratioak berrikusteko eta egokitzeko estrategia bat diseinatzea

| 5. jarduketaren izenburua. | Langileen ratioari buruzko diagnosi estrategikoak | | | |
|---|---|---|---|---|
| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
| % 98 | 80.550 € | % 63 | % 7 | % 100 |
| Trantsizio indizea | % 56 | | | |

| 6. jarduketaren izenburua. | Esperientzia pilotuak abian jartzea antolakuntzako eredu ezberdinen eta bizi kalitatearen pertzepzioaren arteko lotura probatzeko | | | |
|---|---|---|---|---|
| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| Trantsizio indizea | Planifikatua | | | |

| 7. jarduketaren izenburua. | Esperientzia pilotuen jarraipena eta ebaluazioa | | | |
|---|---|---|---|---|
| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| Trantsizio indizea | Planifikatua | | | |

## 4. gomendioa. Eguneroko bizitzaren planifikazioa eta kudeaketa sustatzea

| 10. jarduketaren izenburua. | Jarduera psikosozialen katalogoa hobetzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
| % 100 | 857.423 € | % 100 | % 50 | % 100 |
| Trantsizio indizea | % 83 | | | |

| 11. jarduketaren izenburua. | Pertsonalizazio tresnen katalogoa egitea eta hedatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |

| | |
|---|---|
| **Trantsizio indizea** | |

## 5. gomendioa. Zainketa emozionala hobetzeko programak sustatzea

| **12. jarduketaren izenburua.** | Zainketa emozionaleko programak | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

| **13. jarduketaren izenburua.** | Zainketa emozionaleko esperientzia pilotuak garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

# 2. palanka. Gobernantza kolaboratiboa

## 6. gomendioa. Osasungintzarekin eta ESIekin harremana indartzea

| **14. jarduketaren izenburua.** | Diagnosi soziosanitarioa | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 0 € | % 100 | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **% 100** | | | |

| **15. jarduketaren izenburua.** | Koordinazio soziosanitarioko protokoloen jarraipena | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

## 7. gomendioa. Gizarte Politikako Departamentuarekin harremana indartzea

| **16. jarduketaren izenburua.** | Lankidetzako eta partaidetzako sarea garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 0 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

## 9. gomendioa. Komunitatearen partaidetza indartzea

| **18. jarduketaren izenburua.** | Komunitatean lagun egiteko programa bat garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 25.925 € | % 100 | % 0 | % 100 |
| **Trantsizio indizea** | **% 67** | | | |

## 3. palanka. Trantsiziorako prestakuntza

### 10. gomendioa. Prestakuntza arautuko programa berriak sustatzea (etorkizuneko profilak)

| **19. jarduketaren izenburua.** | Prestakuntza arautuko programa bat garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | Daturik ez | % 92 | % 100 | % 100 |
| **Trantsizio indizea** | **% 97** | | | |

### 11. gomendioa. Prestakuntza jarraitua indartzea (pertsonalizazioa eta berrikuntza)

| **21. jarduketaren izenburua.** | Prestakuntza jarraituko programak garatzea (profesionalak) | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 0 € | % 0 | % 50 | % 0 |
| **Trantsizio indizea** | **% 17** | | | |

### 12. gomendioa. Gizarte integraziorako prestakuntza sustatzea (gizarte berrikuntza)

| **23. jarduketaren izenburua.** | ADINPREST programa indartzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 23.900 € | % 100 | % 100 | % 87 |
| **Trantsizio indizea** | **% 96** | | | |

### 13. gomendioa. Egoitza zentroen arteko ikaskuntza erraztea (transferentzia)

| **24. jarduketaren izenburua.** | Ikaskuntzako eta berrikuntzako sare bat garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 70 | 30.000 € | % 13 | % 0 | % 7 |
| **Trantsizio indizea** | **% 6** | | | |

## 4. palanka. Berrikuntza eta esperimentazioa

### 14. gomendioa. Esperientzia pilotuak/esperimentazioa ezartzea

| **25. jarduketaren izenburua.** | Berrikuntzarako laguntza deialdiak egitea |
|---|---|

| Egikaritzearen aurrerakuntza maila | Aurrekontu egikaritua | Gobernantza adierazlea | Inpaktu adierazlea | Berrikuntza adierazlea |
|---|---|---|---|---|
| % 100 | 116.250 € | % 88 | % 0 | % 89 |
| **Trantsizio indizea** | **% 59** | | | |

## 15. gomendioa. Titulartasun publikoko egoitza zentroen kudeaketa ereduetan berritzea

| **26. jarduketaren izenburua.** | Kudeaketa ereduak homogeneizatzeko programa bat garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 0 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

## 17. gomendioa. Egoitza zentroen ingurumen kudeaketan berritzea

| **29. jarduketaren izenburua.** | Egoitza zentroetarako ekokudeaketako eskuliburuak diseinatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 12.366 € | % 50 | % 0 | % 67 |
| **Trantsizio indizea** | **% 39** | | | |

# 5. palanka. Arauzko garapena (trantsizioa)

## 19. gomendioa. Foru dekretua eta autonomia erkidegoko dekretua

| **34. jarduketaren izenburua.** | 38/2007 Foru Dekretua eguneratzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

| **35. jarduketaren izenburua.** | Autonomia erkidegoko 126/2019 Dekretua eguneratzea sustatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | E/A | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

## 20. gomendioa. Zerbitzuak kontratatzea eta ituntzea arautzen duten irizpideak eguneratzea

| **36. jarduketaren izenburua.** | Zerbitzuak kontratatzeko eta ituntzeko gida bat diseinatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |

| Trantsizio indizea | Planifikatua |
|---|---|

## 6. palanka. Ikuskatzea, monitorizatzea eta ebaluatzea

### 21. gomendioa. Egoitza zentroak ikuskatzeko eredua eguneratzea

| **38. jarduketaren izenburua.** | Ikuskaritza ereduei buruzko ikerketa konparatua egitea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 50.000 € | E/A | E/A | E/A |
| **Trantsizio indizea** | **E/A** | | | |

| **39. jarduketaren izenburua.** | Ikuskaritza eredu berri bat garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

### 22. gomendioa. Barne eta kanpo ebaluazioko prozesuak garatzea

| **40. jarduketaren izenburua.** | Ebaluazio programa pilotu bat garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

### 23. gomendioa. Egoitza ereduaren trantsizioa monitorizatzea

| **42. jarduketaren izenburua.** | Liburu Berdearen monitore bat garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| % 100 | 118.265 € | % 25 | % 0 | % 76 |
| **Trantsizio indizea** | **% 34** | | | |

### 24. gomendioa. Inpaktuaren ebaluazioa egitea (bizi kalitatea)

| **43. jarduketaren izenburua.** | Bizi kalitatearen ebaluazioa garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

## 7. palanka. Komunikazio estrategikoa

## 26. gomendioa. Inguruarekin komunikatzeko modu berriak sustatzea

| **45. jarduketaren izenburua.** | Gizartearekin komunikatzeko programa bat garatzea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

## 27. gomendioa. Trantsizioaren aurrerakuntzen berri ematea

| **46. jarduketaren izenburua.** | Trantsizioa komunikatzeko plan bat abiaraztea | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Egikaritzearen aurrerakuntza maila** | **Aurrekontu egikaritua** | **Gobernantza adierazlea** | **Inpaktu adierazlea** | **Berrikuntza adierazlea** |
| Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua | Planifikatua |
| **Trantsizio indizea** | **Planifikatua** | | | |

### 3.2.1. Jarduketa bakoitzaren egikaritze maila

Jarraian, urte bukaeran jarduketek 2022rako planifikatutakoarekin alderatutako zuten aurrerakuntza ageri da.




### 3.2.2. Aurrekontu egikaritua

Jarraian, zehatz-mehatz jaso da 2022ko jarduketa bakoitzerako egikaritutako aurrekontua.

| Jarduketak | Aurrekontu egikaritua |
|---|---|
| **1. jarduketa** | 15.000 € |
| **2. jarduketa** | 11.561.863 € |
| **3. jarduketa** | 2.273.994 € |
| **4. jarduketa** | 15.583,23 € |
| **5. jarduketa** | 80.550 € |
| **6. jarduketa** | Hasi gabe |
| **7. jarduketa** | Hasi gabe |
| **10. jarduketa** | 857.423,26 € |

| | |
|---|---|
| **11. jarduketa** | Hasi gabe |
| **12. jarduketa** | Hasi gabe |
| **13. jarduketa** | Hasi gabe |
| **14. jarduketa** | 0 € |
| **15. jarduketa** | Hasi gabe |
| **16. jarduketa** | 0 € |
| **18. jarduketa** | 25.925,36 € |
| **19. jarduketa** | Daturik ez |
| **21. jarduketa** | 0 € |
| **23. jarduketa** | 23.900 € |
| **24. jarduketa** | 30.000 € |
| **25. jarduketa** | 116.250 € |
| **26. jarduketa** | 0 € |
| **29. jarduketa** | 12.366 € |
| **34. jarduketa** | Hasi gabe |
| **35. jarduketa** | 0 € |
| **36. jarduketa** | Hasi gabe |
| **38. jarduketa** | 50.000 € |
| **39. jarduketa** | Hasi gabe |
| **40. jarduketa** | Hasi gabe |
| **42. jarduketa** | 118.265 € |
| **43. jarduketa** | Hasi gabe |
| **45. jarduketa** | Hasi gabe |
| **46. jarduketa** | Hasi gabe |
| **Aurrekontu egikaritua, guztira** | **15.181.120 €** |

### 3.2.3. Trantsizio indizea

Jarduketa bakoitzaren trantsizio indizea kalkulatzeko, jarduketa bakoitzaren **berrikuntza adierazleen, gobernantza kolaboratiboko adierazleen eta inpaktu adierazleen** batezbesteko aritmetikoa egiten da.

Hurrengo grafikoan zehatz-mehatz ikus daiteke jarduketa bakoitzaren trantsizio indizea.




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

### 3.2.3.1. Berrikuntza adierazleak

Berrikuntza indizea adierazle sintetiko bat da, beste hiru adierazletatik abiatuta kalkulatzen dena. Liburu Berdearen jarduketa bakoitzerako kalkulatzen da, eta berrikuntzaren dibertsitate mailaren, pertsonalizazio mailaren eta prestakuntza mailaren adierazleen batezbestekoa eginez lortzen da.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke datuak eskura dauden jarduketetatik 8k berrikuntza maila altua dutela (% 71tik gorakoa), 3k ertaina eta soilik 2k dutela berrikuntza maila baxua (% 30 baino txikiagoa).




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

### 3.2.3.2. Gobernantza kolaboratiboko adierazleak

Gobernantza kolaboratiboko adierazle hau beste hiru adierazletan oinarrituta kalkulatzen da: antolakuntzako lankidetza maila, erakundeen lankidetza maila eta gobernantza sozialaren maila.

Grafikoan ikus daitekeenez, oraingoz 8 jarduketak dute gobernantza maila altua, 3k ertaina eta 4k baxua (% 30 baino gutxiago).




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

### 3.2.3.3. Inpaktu adierazleak

Adierazle sintetiko hau xede populazioaren estaldura mailaren adierazleen eta berrikuntzako jardunbide egokien transferentzia mailaren batezbestekoaren bidez kalkulatzen da.

Gaur egun, 10 jarduketak dute inpaktu maila baxua. Oro har, horren arrazoia da sarri ez dagoela daturik. Gaur arte, 3 jarduketak dute inpaktu maila ertaina (% 50) eta bik inpaktu maila handia dute.




Baxua (% 0-% 30)/Ertaina (% 37-% 70)/Altua(% 71-% 100)

## 3.2.4. Emaitzen adierazleak

2022an, jarduketa bakoitzerako emaitzen adierazleak definitzeko egin da lan, jarduketa bakoitza egikaritzean lortutako emaitzak neurtzeko. 2023an, jarduketen arduradunek lanean jarraituko dute datuak lortu ahal izateko eta definitutako adierazleak neurtzeko.